

# TRANBIA

## Erantzun itzazu hurrengo galderak

ikas

1.- Entzumenean, zergatik esaten diote tranbiari "errailtako suge zaharra?"

---



---

2.- Oraingo tranbiak...

	hasierakoak baino isilagoak dira.
	ez dira hasierakoak bezain garbiak.
	hasierakoak bezalakoak dira.

3.- Zergatik deitzen zitzaien hasierako tranbiei "odol tranbiak"?

	Bero handia egiten zuelako tranbietan eta jendea izerditan blai ibiltzen zelako.
	Animaliak ibiltzen zirelako bagoiei tiraka.
	Zaldiak, mandoak eta behorrak bagoietan eramaten zituztelako.

4.- Hasierako tranbietan...

	bidaiariak ez ziren oso eroso egoten.
	iraultza sortu zen.
	burdina aurkitu zuten.

5.- Elektrizitatearen garaiak...

	"odol tranbien" garaiak ziren.
	tranbiak bazterrean geratu ziren.
	garai modernoak ziren.

6.- Autoa agertu eta...

	tranbien kopurua handitu zen.
	tranbien kopurua txikitu zen.
	tranbiak ilundu ziren.

## 7.- Autoak...

	arazoak besterik ez ditu ekarri.
	asmakizunik zoragarriena izan dira.
	alde onak eta txarrak ditu.

## 8.- XXI. mendean...

	sugeak ikusten dira gure kaleetan.
	tranbiak itzuli dira.
	sekulan baino indartsuago gaude.

## 9.- Gaur egungo tranbiak...

	belarretik ezin dira mugitu.
	harea badago ezin dira pasa.
	edozein tokitik mugitzen dira.

## 10.- Osatu falta diren datuak:

Zein da bagoi baten luzera?	
Zenbat bidaiari garraia ditzake bagoi batek?	
Zenbat ate ditu bagoi bakoitzak?	

11.- Erantzun entzun gaiaren bukaeran egin dizuten galdera. Erantzuna baiezkoa bada kontatu non eta noiz; erantzuna ezezkoa bada esan gustatuko litzaizukeen.

---



---

## 12.- Zer testu mota da?

	Instrukzioak
	Azalpena
	Iragarkia

# IRUDIAK TRANBIA



col. Joseph P. Saitta

